

UPV/EHUren IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2025)

2. Mod. - Ikertzaile hasiberriek gidatutako ikerketa proiektuak

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean, IGBB) oniritzia eman eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketako Errektoreordetzak (aurrerantzean, IAE)

UPV/EHUren IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2025)

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, IAEk berrikusi egin ditu, deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Egiaztapen horren ondorioz, 2. modalitatean ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda Errektoreordetzaren web-atarian argitaratzeko agintzea erabaki da, bai eta zuzendu beharreko alderdiren bat duten eskabideak ere.

Eskatzaileek 10 egun balioduneko epea izango dute (**2025ko uztailaren 15etik 29ra arte, biak barne**) zerrenda horretan eskatutako dokumentazioa aurkezteko. Epe hori igarota, eta aurkeztutako alegazioak berrikusi ondoren, onartutako eta baztertutako eskabideen behin betiko zerrenda argitaratuko da IAEren webgunean.

Okerren zuzenketak eta alegazioak eskaerak aurkezteko 28. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilita aurkeztu beharko dira

<https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/index?lang=eu>

Leioan, 2025ko uztailaren 14a

**UPV/EHUren IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETA ERREKTOREORDETZA**